
***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aidatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.



EUROPA'RA GOAZ

EUROPA'TARRAK GARA

Munduan ez da inor bakarrik bizi, ez gizonik eta ez erririk.

Gizonak jaioten danean bere inguruan aurkitzen ditu bizikideak* eta erriak be euren inguruetan aurkitzen ditue ingurukideak*.

Euzkadi ez da ba, bakarrik biziteko egiña, eta ezin bizi leiteke bakarrik.

Bere kondairara* bagiratzan ba'dogu, mundu zabalean aberri asko aurkituko doguz Euzkadi'gaz artuemonak izan dabezenak, Europa'n eta ludi guztian.

Bakarrik biziterik ez dogu bear eta gura be ez. Ez gara «separatista»k edo bakar-zaleak, askok uste deben lez. Lagun zuzenakaz eta geurea galdu barik alkartu gura dogu besteakaz, eta orixe da dana.

* * *

EUROPA'N ZELAN?

Europa'ra begiratzeak, egia esan, pizka bat artegatu* egiten gaitu.

An be gurearen antzeko aberriak azpiratuta ta burrukan ikusten doguz, an gudeak eta norberekeriak sortu dituan laterri aundiak agiri dira. Gaurko Europa'k lerkai edo «explosivo» baten antza dauka.

Ekonomi-arazoan, kapitalismo* geiegi ikusten dogu, naiz ta gu ara joatean sozialismoa* eskatu

Erlejiño-arazoa konturatzen ba'dogu, ez dogu pozbide asko aurkitzen. Europa'ko kristiñautasuna bear dan baiño zati geiagotan eta alkartu eziñik nabari da

Oiturak konturatu ezkerro, garbitasun eta zentzun geitxuago gura genduke: Drokakeria, lizunkeria*, gogorkeria, sendi-austea, eta zer ez?

Jakintza-arlorra begitu ezkerro, esan lei pozbide aundiagoa dagola, naizta eretxi baragarriak ugari izan.

Ekonomi-arloan alkartze-lan aundiak egiten dira eta epe luzerako ba dago itzaropena.

* * *

GOAZEN EUROPA'RA!

Europarrak gara eta Europa maitatu bear dogu, dan lakoa, bere alderdi on eta txarrakaz.

Geu txikiak izanda be, Europa obetuteko geure alegiña egin eta Europa'n sartzeaz, geure nortasuna galtzeko arriskua azpiratu bear dogu. Eurak be garan lakoak artu bear geitue.

Guztiakaz adiskide ta lankide, baiña bakoitza bere lekuan, bakoitxak bere bizitza, bere jakintzea ta bere dirua zaintzen dituala.

Eta Europa'k beintzat ez dau aiztu bear ko Euzkadi but dala eta euskalduank iparraldearen eta agoaldearen artean ez dabela ezelako mugarik bear. Etorriko al da gugaz Europa'ra Naparroa!

* * *

ZER EROANGO DOGU?

Europa'ko aberri guztien alkartera ez dogu esku-utsik joan bear ko, euskaldunok ez dakigu esku-utsik inora joaten.

Ekonomi-arloan, naizta gaur-egun larriune ikaragarri baten sartuta egon, ez gara txarrak be eta eurakaz artuemonetan jarri al izango gara, batez be nondik edo andik gure Iparraldearen aurrerapena lortzen ba'dogu.

Kultura aldetik aberatsak gara eta Europa'ko kulturen azokara* zer eroan izango dogu.

Gure izkuntza zar eta ederraren balio istorikoa ta jakintzazkoa be an izango dogu.

Erlejiño-aldeetik, gizartean egokiro sartutako kristiñautasuna eroango dogu, eta ori lortzeko azpiratu bear izan diran eragozpenak azpiratuta!

Zentzunezko oiturak eta beste guztiak baiño zarrago dan demokrazi* garbia.

EUSKAL EGUTEGIAK

GAURKO EGUTEGIAK

Urte barri. Bizi barri?

Kazkarra* eta beste gauzak lengoai eukita al ete leike ori?

Egutegiei, kalendarixuei begira gagoz
Nun da aldakuntza?

Teknikaz, agerbidez, argazkiz, ko lorez... leike. Apain, dotore, ikusgarria goak oraingoak.

Bestelakoz?

Gero ta andre zaleago. Urtetik urtera, edozein be, ez al goaz zaartuten', Ba zaarrago ta lizunago* esan bear

EUSKAL EGUTEGIAK

Euskal egutegiak falta dira gure artean, gure bizitza, izate ta ingurua egutegi lez, agertu leikenak.

Izkiz (letraz) eta gogoz.

Esanez eta esan naiez.

Ikurrin bat edo beste agertzeaz beteten ete da nai ori? Ez. Ez eta kate edo burdin sareez margotuta.

Ori une bateko esan naia, egoaldi bateko gertaera eta naia izan leiz.

Egutegia, urteko egunen giroa, noiz zer eta noiz zelan, noiz nun eta noiz nor, ori egiteko dogu, euskal begiz beintzat.

Erri baten giro osoa gogoratuko leuken egutegi on, ikusteko dogu.

Kuarta tenporak, santu batzuen jai inguruko gertaerak, sasoiko siniste, egitura, gogoaldi, premiña eta abar, lengo eta gaurko gure istori zarra..., au da, erriak bere oituretan dabillan egutegia, jasoteko dogu.

Erriaren biotzari ikutu eta atsegiña edo naigabea piztu nai gogoratzekoa, oraindik ikusteko.

Gaitz dala?

ARGI BIDEAK

Artu, aukeratu edozein erri.

Urte barri egunak berak zenbat burubide asieratik?

Eta beste ainbat sasoi eta jairek, zenbat?

Goazen erri batera. Nik erraz eta urren daukadanera, argibide baterako. Berritua.

Ez al litzake polita izango, beste askoren artean, eta beste errietako goraberen artean, bere nortasun bereziko egutegi errikoi au?

Urtarilla'k 1. Urte barri. Urte barri-barri, daukanak eztaukanari emon bear sarri.

Otsailla'k 2. Kandelarixo. Andrak andra andi kandelariotan dira agiri.

Otsailla'k 3. San Blas.—Ari bedeinkatua saman lotu ta katarro ta estulak blast.

Maiatza'k 9. San Gergorixo.—Be-larriko miñak kentzeko eroan santuari botilla bete orixo.

Beste esakera: Euri apurra, antxoa adurra.

Bagilla'k 24. San Juan, San Juan, nik ez daukat besterik goguan, arrautza bi kolkuan, beste bi altzuan, garien tokiak gertu barruan, lapur ta sorgiñak erre basuan.

Bagilla'k 29. San Pedro bedarrak bigundu ta eltzen ditue gizonen zaldarrak*.

San Pedro bedarrak batu ta Berri-tukoari erakusten etorten ei ziran ondarrutar emakumeak, gero bedar orreik txalopetan ipinteko, brankan*, gerrian eta popan. Txalopak erramutan erabilten ziranean, bedar oneik ei ziran onenak gizonen odol batu eta gogortadak biguntzeko.

Garilla'k 22. Neskazarrak joaten dira Madalenara, Madalenara, santiari eskatzera nobio bana, komeni bada. Santak egiten dautso baruari dar dar, alperrik ez negar...

Dagonilla'k 10. San Lorentzo'k esku baten sua, Asterrika'n otz dana berua.

Iraila'k 2. Santi Antolin, txistu ta tambolin, gona barrenak aidian gau guztin.

Iraila'k 9. Ama Birgiña Gardotzako, gure ume au ez da ezetako, ez argitzeko, ez argitzeko.

Iru zapatutan etorriko naz ta mesedetxu bat beretzako.

Iraila'k 14. Santa Krutz Irailleko, idi zarrak ilteko.

Eta orrela beste ainbat, jai bakoitzean bat, emen edo an askoren gogoetan bizi diranak.

Santuekin bakarrik ez. Ba dira santuekin zer ikusirik ez dauken egunak. Esate baterako:


Epailla'k 1. (1974). Madrid'en, mimstroen batzarrean, Berriatuari ostikada.

Erri au Ondarroa'k irunsiteko legeko akulakada.


Zenbat beste orrelako? Ez al litzake antzerako zerbait euskal egutegi jator

izango?

A. ZUBIKARAI



- SEI EUSKALKI.
- LEIÑUAK KONTUAN ARTU.
- ARABA'N.
- GIPUZKOEREA.
- LAPURTEREA.
- NAPARRERA BI.
- ERRONKARIN GALDUA.
- IPARRALDEAN LARRI.
- ATZERAKA.
- H'AREN BURRUKEA.



Leinuen Euskerea

Euskera bat da, baiña alde guztietan ez da bardin egiten. Gure izkuntza zaarrak, Gernikako arbolaren antzera, adarrak ditu.

Zeintzuk dira, eta noraiño zabaltzen dira Euskeraren adar orreik?

Aurreko lanean esan genduen erromatarren aldi euskal leiñu edo tribu bakotzak bere euskera apartekoa egiten ebala.

Euskeraren zati orrei guk «euskalkiak» esaten deusegu.

Euskerak gaur sei zati edo euskalki ditu: Bizkaiera, Gipuzkoera, Lapurtera, Goi-naparrera, Beenaparrera eta Zuberera.

F *

Euskalki bakotxa non egiten dan, eta zenbatek, mapa onetan argi ikusi zeinke, irakurle.

Aurreko mapa au ikusiz, laster konturatuko zara, bizkaieraz ez dala Bizkaian bakarrik egiten, baita Gipuzkoako zati andi baten ere: Eibar, Soralue, Bergara, Arrasate, Oiñati, Aretxabaleta... Gipuzkoako erriak izanik bizkaieraz egiten dabe.

Arabako Aramaion ere bizkaieraz egiten dabe, eta leenago Araba osoan Bizkaieraz, edo beintzat bizkaiera antzeko euskalki bat itzegiten zan.

Zenbat gara, beraz, bizkaieraz egiten dogunok? 200.000 euskaldun.

*

Gipuzkoeraz, ostera, ez da Gipuzkoa osoan egiten.

Donostiatik arantz, Bidasoa ibairaiño, Goi-naparreraz egiten da, baiña Altsasua aldean ere gipuzkoeraz egiten da, eta aide au Naparroa da.

Gipuzkoeraz egiten dabenak beste 200.000 euskaldun dira.

* :

Lapurteraz ere ez da Laburdi osoan egiten, mapan ikusten danez. Baiña Naparroako Baztan aldean lapurteraz egiten dabe.

oster, bi euskalki erabiltzen dabez: beste aldekoak Beenaparreraz, eta gure aldekoak Goi-naparreraz.

Goi-napar euskaldunak 50.000 dira, eta Beenaparrak 5.000.

x a:

Zuberera bizilagunez urria da, eta ango euskaldunak oraindik gitxiago: 11.000 bakarrik.

Erronkarin (Ronkal) euskera galdu da.

Ango azken euskaldun aitona zaarra orain 5 urte il zan.

*

Tamalgarri da esatea, baiña egiarentzat zorretan gagoz, eta lpar-Euskadiko Euskera larri ta estu dabil bizirik irauteko. Euskal-tzaindiak oraintsu argitaratu duan «El Libro Blanco de l Euskera»k diño: «la presión de la lengua oficial (el frances) ha hecho recular al viejo euskara hasta el punto de que se tema seriamente por su suerte como lengua viva y popular», p. 145.

Bizkaieraz	200.000
Gipuzkoeraz	200.000
Goi-naparreraz	50.000
Beenaparreraz	55.000
Lapurteraz	22.000
Zubereraz	11.000

Gutziz 538.000 euskaldun

*

Mapa au, eta zenbaki (dato) oneik begien aurrean eukirik zera ikasi bear dogu:

Orain eun urte euskeraz egiten ebenak eunetik 52 ziran.

Gaur euskeraz dakigunak eta egiten dogunak eunetik 22 bakarrik gara.

Euskera atzeraka doa, eta gure arteko burrukak itxita, euskaldun guztiok euskararen alde jator jokatu bear dogu.

Osterantzean euskera ilgo da.

Frankoren diktadurapean, euskaldunak (zaar eta gazteak) «h» bai eta «h» ez, lotsagarrizko burrukan ibilli gara.

Zuok 15-20 urteko gazteok ez zaitzeze gure antzera burrukan

Nok daukan arrazoia zuok ikusi.

Auzi au zuok garbitzeko dato-zenbaki oneik emoten deusuedaz: 450.000 euskaldunek ez dabe «h» erabiltzen.

98.000 euskaldunek «h» erabiltzen dabe. Zuok erabagi.

Goikoetxea'tar Iñaki.

LAUAXETA, BIZKAIA

NOR DOGU ARTISTA?

Artistak dira kolore ta margoetan, musikan, etxegintzan naiz taillu-lanean zerbait dotore La eder-senez egiten diarduenak.

Emen alan be olerki ta poesi-lanari lotuko gaiakoz, besteak alhora itxirik. Poesi lanak, eta orretzek bakarrik, egin oi dau olerkaria olerkari; koplariak idatzi edo osotu ez dauanari, zelan poeta deitu? Beste doai guztiak, goi-argi, teknika ta olakoak, ez dira ezer arte-lanean aragitu ezik.

Sorpen bat da olerkia, geuk sortu La izatera ekarri dogun zerbait; sortu ta aragitu egin oi da olerki bat, Txillida'k naiz Oteiza'k arrian mamintzen daben irudi bat Legez.

Ez gero ezer-ezetik, Jainkoak mundua lez, lengaietatik baiño.

Txillida'k eta Oteiza'k arria dabe len-gai, au da, aurretik dan gaia, arria; olerkariak, ostera, goi-argia, antze-trebetasuna— ta teknika ditu lengai.

Sorpen egiztatua dozu artea; esku-lan bat, indarrezko lan bat, arte lana dozu, leen ez zana izanera ekarria; leen ez zan eta orain ba-cia; izatea emon yako, beraz, izaki bati.

Gaiari izatea emon, era La itxura ezarri, por artea, eder-antzea.

Itxura ori, jakiña, ederra izan oi da. Beti? Bearko! Bestela, zelan deitu eder-lana?

Artista danak bere gaitasunak euki bear dauz ortarako: goi-argia, edersena, teknika...

Oraindik oraintsu Laukiniz erriak omendu eban Lauaxeta'k, bertako seme leialak, izan zituan gaitasun orreik, bere olerkiak eta bestelako idazlanak testigu dituzula.

Prosaz idatzi euskun, urte bi ta erdian gitxienez, ia egunero, Bilbo'n azaltzen zan «Euzkadi» egunerokoan;.

Olerkiak, ostera, *Bide Barruak* lenengo ta *Arrats Geran* gero, argitaratu zituan, poesi liburu bikaiñak bata zein bestea.

LAUKINIZ'KO SEME

Erri atsegingarria dozu Laukiniz; Gatika ta Urdulitz bitartean datza, Butroi gaztelu crimea eskumatik eta Unbe-Mendi gaiña ezkerretik ditula.

Ementxe jaio zan, dakingunez gure olerkaria, artista bipilla, Erriko Taberna deritxon etxean, eleizeari aurrez-aurre, frontoi ertzean.

1905'ko dagonillaren 3'an munduratu zan.

Beronen aita, Jose Mari Urkiaga, Aulesti'ko semea zan, eta ama, Bizenta Basaratz, bertoko alabea.

Mutikoak lau bat urte zituala, Mungia'ra aldatu zan Urkiaga sendia. Baiña jaio Laukiniz'en jaio zan.

Qua egunokaz egunkari baten irakurri dodana: Lauaxeta'ren azur edo gorpuzkiñak Mungia'ra ekartera doazala; Gazteiz'en tiroz il eben, bertako iltegian lur emonaz; an dagoz, ba, aren azurrak. Ederto andik bere jaioterriara aldatzea, baiña nora? Mungia'ra ala Laukiniz'era.

Nik irakurri nebanez, Mungia'ra Zergaitik? Laukiniz'en ez al zan jaio?

Umetan Mungia'ra aldatua izan arren, Lauaxeta beti izango da laukiztarra.

Bego emen be: erriak errikoari dei.

IKASLE. IZLARI. ERIOTZA

Zerbait koskondu ta Mungia'n bertan lenengo ikasketak osotu zituanean, eleiz gizon izan gura ta, Durango'n, Loiola'n eta Oña'n egin euskuzan ikasaro nagusiak.

1928'an, Jesusen Lagundia itxi ta Bilbao'ra etorri zan, «Euzkadi»-n lan egiten asirik. Onen euskal atala, ospe aundikoa, lenengo Kirikino'k zuzendu eban 1913'tik 1928'ra; gero Orixek, eta 1931'tik aurrera Lauaxeta'k geien bat.

Errepublikan denporan batez be oso langille agertu yakun laukiztarra; artikuluak idatzi ta liburuak atara ez-ezik, ainbat itzaldi be emon zituan Euskalerriko areto ta plazetan.

Gerra sortu zanean, beraz, Euzko Gobernuak kentsejeru lez eukan, eta guda oiñetara sarri joan bear izaten eban ordezkari lez. Elgeta aldean, dunbots artean sarri, alkar adoretu genduan.

Gernika suntsitu ebenean, ondorcngo egun baten ain zuzen, an zan Lauaxeta, ango ausiabar, triskantza ta Zugatz santua kazetari arrotz batzui erakutsi nairik.

Ortan ebillela inguruan zituan ct-saia] ez-ustean oratu ta Gazteiz'era eroan eben atxillo. An, karmeldarren komentu espetxe biurtuan bi illabete egin ondoren, 1937'ko bagillaren 25'an, goizeko 5,30'etan, fusilatu eben.

Espainiar poeta ernai Gartzia Lorke'ren adiskide zan, eta adiskide biak azken ordu bardiñak itzali ebazan.

OMENALDIK

Luzaro erdi-azturik euki ostean, 1972'an, Larrea'n urtero ospatu oi dogun Olerti-Egunez omenaldi eder bat egin yakun, Euskalerrri osoko idazle ta olerkari punterengoak eskeiñita.

Arrezkero be egin yakoz beste batzuk, oraintsu Mungia'n opatu yakona, esate baterako.

Baiña danetatik ederrena, nire ustez, aurten Laukiz'ko erriak, bertako gazte

bizkorra] buru dirala, eskeiñi dautsoena izan cia.

Irailaren 25, goizeko amaikak. Danbadaka erriko eleiz-kanpaiak; zuri, gorri, igande soiñeko plazan dagoan gazte ta zar laguntalde ugaria eleizbarrura doa.

Eta or jentez beterik oraintsu esku goxoz barriztutako eleiza.

Iruk zuzentzen dogu meza: erriko txauburu gazteak, Solozabal jaunak eta nik.

Txaunburuak dagi itzaldia, ederto, Lauaxeta'ren kristautasuna goratuz.

Koruan, neska mutil talde alaiak bizi-bizi abestu dau euskal meza, gazte urduri baten ardurapean.

Ezin amaituzko Jaunartzea.

Ondoren, erriko frontoi polito apainduan, bertakoz ta kanpotarrez beterik dagoala, bertsolariak —Lizaso, Lazkaur-Txiki, Intxaurraga, J. Enbeita, Lopategi ta Amoritzak-euren len-ekiñaldia osotzen dabe.

Bero-bero txalotzen ditu jentek.

Poesi-batzaldian irabazle izan diran olerkariak sariak banatzen yakez ondoren.

Jarrain bertsolariak barriro be; oneik eta beste beiii-beiñeko izlari batzuk gizonkiro jaso dabe bizkaitar olerkari bikaiñaren irudia.

Laukiz erria bera be olerkari dala dirudi, olerki ta poesi-zale bai beintzat: adi-adi egon yakun bertako seme argiari egiñiko jaialdi guztian.

Odolak ez parkatzen. Ba-dakit, pozik dagoz benetan gazte jai-gertatzailleak erriaren erantzuna ta batasuna



ITARR OLERKARIA

ikusiaz; ez izan dudarik, erriaren amasa edozertarako eder. Eta akuillu.

Bazkal ostean, bostetatik aurrera, sokatira.

Indar-kirol bereziak atsegin yakun; baita sokatira be.

Bizkaitik eta Gipuzkoatik ogei bat talde bertoratu yakuzan, morrosko bulartsuak oso.

Poz-eztitan egoan jentea, onein in-biziak txalotuz.

OLERKI - BATZALDIA

Jai orri itxura emoteko, ta errian kultura sena itxartu, olerki-batzaldi bat iragarri zan garaiz.

Egitamuak onela ziñoan: «Laukiztar gazteak, «Lauaxeta», euren erriko seme argia, eta olerkari punterengoa, goratu nairik, eta bide batez erri onetako kultura gogoa biztu-arazo, aurten, bertoko jaietan, «Lauaxeta» I. Olerki Sariketa jarten dabe, aal dala beintzat, orrela jarraitzeko asmoz».

Oni gagozala, beraz, urrengo urteetan be bardin egiteko xedetan dira gure laukiztarrak. Txalogarri dira, bene-benetan!

Olerkiak edozein cuskalkitan zeitekezan.

Gaia bakotzak aukeratua, lirika saillekoa naiz edozein poema mota.

Olerki bakotzak eun bertso gitienez izango zituan, naiz poema bakar bat naiz poema txorta bat izanik.

Jatorra izan bearko eban lan bako-
au da, barria ta inon argitara,
emon bagea.

Sari bakarria: 50.000 pezetakoa, ta oroigarria. Onez gainera aipamen batzuk.

Ogetalau poesi aurkeztu ziran. Eta guztiotatik Zeanuri'ko Etkezarraga, Al-tzusta auzuneko ikasle gazteak jaso eban lenengo saria, beste lauk be sari txikiago ta ezaugarriak arturik.

LAUAXETA, OLERKARI

Lauaxeta, Loiola'n egoala asi zan idazten; eta bertsoz asi be.

1925'garren urteko lotazillan ager-tzen da, Bilbao'ko «Jesus'en Biotza-ren Deya»-n, bere lenengo olerkia. Amalau aapaldiko lana dozu, Begoña'ko Andra Maria'ri eskeiñia.

Onela firmatzen dau: «Basaraz, S. J.».

Amabi silabakoak dira, 6/6, erdian etena dabela; amaierako rimak ez dautso kezka larririk emoten. Daukan mamiñak eta soiñekoak, alan be, egil-learen nortasuna, olerkari bezela noski, argi ta garbi darakusku.

Gerora naikoa idatzi euskun bere bizitzaldi laburrerako. Aitatu doguz bere liburu biak, poesi jatorrez ornidu" takoak. Orrez gainera, ba-ditu beste batzuk «Euzkadi» egunerokoan «Iz-kiñuak» tituluz umetxoentzako atara zituan alegi ariñak, eta Gazteiz'ko espetxean egoala egiñiko sei-zazpi poe-ma sentikor.

Lauaxeta'ren neurrtz-lanik geienakaz idatzi polita argitara neban oraintsu. Larrea'n eskeiñi geuntson omenaldian, guztion abots eta gurariz, erabagi zan lez, laukiztarraren olerki-lanakin liburu bat osotu bear zan, eta orrela egin genduan urrengo urteko Olerki-Egu-nerako.

Euskal olerkariak eta abar pozarren artu eben liburu au; ortara, Lauaxeta' ren poesi-lan lilluragarria ezagun-era-zirik.

Gure kantariak be ordutik asiak doguz aren poemak or-emen anbestu ta zabaltzen.

AZKEN OLERKI BAT

Nik oraiñarte aurkuru ta ikusi ez dodazan olerkiren batzuk izango dira, dudarik bage.

«Euzkadi» egunerokoan ba-dira batu bakoak.

Giltzape egoalarik biribildu zituanc-tatik ia danak, Leopoldo Zugatza'k Durango'n ataraten dauan «Gaiak», laugarren alean, agertuko dira.

Aldizkari ortan, nik idatzitako lana-
ren ostean be, ots, arrezkero, agertu
dira beste batzuk, Lauaxeta'k orduak.

Ona bat oindiñokarren iñoiz argirik ikusi GaBea.

Aurtengo bagillaren 15'an Muniategi'tar Sabin'ek, Errera-Donosti'tik, au idazten eustan:

«Irratitrik* entzun nebanez ba-dakit esku artean Lauaxeta gure olerkari gorengoa dogunari buruz zerbaiten asmoa artu dozula. Olerkiak? Ala olerki ta idazlanez oso-tutako bildumaren bat? Dana dala, emen bialtzen dautzut bere guda aurreko olerkai eder bat berak niri Bilbo'n aurkitu gintzazan egun baten irakurteko itxi eustana... Gero, gudaren sarcan jausi edo sartu gintzazan eta, olerki au geur arte, nik dakidanez, argitaldu bar-rik dago».

Ortaz ba, leendik ezagutzen ez gen-duana da; guda aurretik, azken or-duan ederki egiña. Zuk, «Zer»-zale orrek irakurri ta miazkatu dagizu, emen dozu bera. Orati'k egin zituan askoren gisa ondua da.

MAIRA DEIA

«Nire mai garbi au masparBean yagok txiro baña eder, neurritz gauz danetan. Arrats Galen gentza edariak yaukok: aize-mihia yabilk mäsorri puntetan.

Ator neure maira egunaren billa zorion lorak, ba, etxaukek aronik! Gaur gurea yaguk laketengurpillo ta iru Ederkunak yatozak alaarik.

,ateak on begik edanak ez gaitzik, ta eure barrenan eziz begok poza. Urrezko txol Galen, doai xamurrenik, aizkidetasunak bekar mintzo boxa.

Borgoña'ko matsik ez donak gurean, baña Laukaritz'ko mastien nigarra Orati'k ledakek bertso ozenenean. Odol egin zuan Eguzki'ren garra!

Emaitzon unaoan goitz-intza yatorrak eta euron urak ezyaukak bardiñik. Erle-madari ta txakala-sagararak, zelai berdeetako usañez baterik.

Maian jarri adi, baña eure lagun naalko edo itunik ez egik ekarri. Oraingoa sollik atzenaonyagigun ardo au bai-yakuk ezpanen pozkarri.

Edontzi mee bana eskuan jasota edango yuaguk arrats onen isla. Eta oianeko otz bustia artuta etorriko yakuk goietako itzala.

Iñok gurri egirik uri urduna edo uin latzetan yabilkna batela. Guretzat, lais baten alizots ezia, eta lora-pean yagokan kupela!

Bizitzaren guna txastatzen yokanak ezyok bear jakitumen itzik. jakintza onena ardo meedak yaukak! bere kolkoan, ba, ez yabilk zadorrik.

Geroa ezetsi, lññe eder ta argiak sarri balio yok betirunak aña! Gaur ezer ez donak biarko liliak: t ontzat ar egin, ba, neure mai apaña.

Lauaxeta'ren luma-puntak egilleak barne —biotz ta adimen— eukana ustu oi eban.

Lan onek dituan biozkada ta adimen-igaliak bai gurenak, sakonak!

Apostoluen artean Tomás Didimo'k ez eban nai bere eskua Kristo'ren saietsean ezarri arte.

Gura idazle ta olerkariaren artean Iñok Lauaxeta'ren balioz ez bairik ba' dau, begi bein eta barriro poema onen ostoai danen guran gozoa.

AITA NDIAONAI

EUROPA

EUROPA'KO ONU-BATZARRA

BAZKIDEAK

Oraingoz emeretzi Erri-aldek osotu oi dabe egungo egunean Europa'ko Onu-Batzar au.

España'ko demokrazi, erri-agintea, oztaz ba'da be aurrera doanez, Europa'ko eskualde guzti oneik, urrillean izan eben batzar baten, euren autarkia, botoa, emon eben España'k be aurrerantzean euren artean toki berezi bat izan dagian.

Olan ba, 1978'garreneko urtarrillean España'k be eskubide osoagaz esku artuko dau erakunde onetan.

* * *

ZE - NOLAKO ERAKUNDEA DOGUN

Europa'ko Onu-Batzar onetzaz barri batzuk bereala emotera noatzue.

Bere asiera 1949'garren urtean aurkitu geinke.

Ludiko bigarren gudea amaitu ondoren, ain zuzen.

Sorburu edo zergaitiak, guda ostein izan genduzan federazio, alkartasun ta Europa-zeletasunezko ideigogapenetan zuztraituta, errotuta, idoro oi doguz.

Londres'en izenpetu zan orrillaren bostean bere sortze edo iraspena.

Errialde irasleak Belgika, Dinamarka, Prantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Noruega, Suezia, Holanda ta Ingalterra izan ziran. Guztiz amar.

* * *

BERE ELBURUAK

Gerora, geienak izentatzeko, 1956'garrenenan Grezia ta Turkia batu jakezan. 1961'garrenean Txipre, 1963'garrenean Suiza, 1965'garrenean Malta. Ta azkenez Portugal joan dan urtean.

Lurralde, rejiño-arteko Erakundea dogu ta bere jomugak, eginburuak, askotarikoak ei dira, eskubide ta gaitasun guztietarikoak.

Olan, bere lenengo atalburuan diño: «Bazkideen artean batasun aundiagoa lortzea bearrezkoa da, guztioen amets-elburuak, idealak, zaindu ta gordetzeko ezeze baita be adorez, su ta ke, eurak egin-azteko ta gizarterekiko aurrerapenei biziro laguntzeko.

* * *

ERAKUNDE - ARDATZ ONEN ONDORIOAK

Europa'ko batzorde au urtean birritan batu oi da.

Garrantzi aundiko zerak, erabagiak diranean, guztioen autarkiak bear dira.

Ain gora aundikoak ez diranean, 2/3, irutik bi, jadestea naikoa da.

Bere mendean dagoz «Gizonaren Eskubideen Bazkuna Europa'tarra» ta «Gizanaren eskubideen auzitegia».

Auzitegi onetara joatea aske dago baldintz bi oneik bete ezkerok: jo oi dauanari, jaiotzez eta bizi izatez Europa'ko Onu-Batzarra osotu oi daben Errialde batekoa izatea eskatu oi jako eta, bigarrena, pertzona oni berari, bere errialdeko legediaz neurri garbi, konkreto, batzuetan bat ez etortzea, egitan.

* * *

EUSKALDUNENTZAT?

Euskaldunentzat be aurrera bidean, oinkada, urrats, interesgarria ta egokia dala deritxat.

Zaiëna is zara-zara uaua¹ rue, gure¹ uuruja¹ uci¹ asun osoa¹ forizen¹ w¹ uegizueuu bear doguzan ikuspegi berezgarri, ezbardin, guztiak batu-azoteko.

ARREGI'tar Josu'k

EUROPA'KO ABERRIAK

NORTASUN - GAIAK

Irurogei baiño geiago dira Europa'ko aberriak edo etniak.

Euretatik erdiak ez dira euren buruaren jabe osoak, ez dira laterriak edo estaduak, beste laterri baten menpean dagoz.

Erri-bakarreko laterriak oso bakanak dira gaurko Europa'n: Portugal, Irlanda, Islandia ta besteren bat.

Etnia edo erria olan azaldu ta mugatu leike: Izkuntzea ta kulturea berbera ta besteakandik berezia daukan taldea.

Erri baten nortasuna ainbat zati, gaiak, osatzen dabe, baiña onein artean bat agertzen da nebarmen eta nagusi: Izkuntzea. Ez bera bakarrik eta beste gaiak kontuan artu barik.

Laterria, estadia, ez da jatorrizko gizartea, kondairan zear sorturikoa da.

Lenengo gizartearen lokarriak senidetasuna, izkuntza ta orreinalako gaiak ziran.

Lurralde mugatu orreik eta gobernuak, langaiak ta zertzeladak egiten debe laterria.

* * *

LENAGOKOAK

Erriak edo aberriak, laterriak baiño lenagokoak dira gizonen kondairan eta gizartearen erabidean.

Laterrietako gobernuak euren agintze, legeak eta esanak zabaltzen dabez, erri-etnien eskubideak iruntziaz.

Europa'ko laterriak barriak dira.

Batzuk munduko ezken-gudaren ostean sortuak.

Errizko gizartea aldakorra ba'da, askoz aldakorragoak dira laterriak.

Oraingo Europa'ko laterriak, politikoen bidetik sortu dira, baita gudaketak bitarteko dirala be.

* * *

ARAZOAK

Europa'ko erri ukatuen arazoa, kulturearena ta izkuntzearena da, baiña al di berean arazo politiko ta ekonomizkoagaitik, erri onein elburua, asmoak eta burrukea ez doa kulturearen alde bakarrik, politikako agintaritzea lortutea, eta gizarte edo ekonomizko askatasuna be billatzen dabe.

Ori dala ta, eskubide orreik lortzeko asmoz alkartu dira guztiak.

* * *

LANETXE BAT

Europa'ko aberrien alkarte orrek, lanetxe edo «Bureau» bat dauka eta lanean diardu.

Europa'ko laterri bako errien lanetxe au sortu eben erakundeak oneik izan ziran: Euzko-Alderdi Jeltzalea, JEL edo PNV deritxona, Gales'ko Buru jabe aurreko Erri-Alkartera, Alsazia'ko Erri-Alkartera, Eskoziako Erri-Alkartera batu ta alkar laguntzaillea, Andaluzia'ko sozialistak, katalandarrak, Galiziarrek eta beste talde batzuk.

* * *

ZEREGIÑAK

«Bureau» edo lanetxe oneri ezarri jakozan zere giñak, aberrientzat oso gogoangarriak dira eta onelantxe laburtu leikez:

—Laterri zapaltzailleen aurrez-aurre, aberrien politika ta gizarte-eskubideak zaindu.

Errien artekoa, eta ez laterrien artekoa, dan Europa lortu arte,

Europa'ko ekonomi batuan indar egin.

Legeetan eta arauetan oiñarriturik, laterri bako errien laguntzak eta ekiñaldiak batu, gizartean errialdeen politikea egiteko.

Europa'ko aberrien ekiñaldi au pozgarria da gure Euskalerrarentzat. Inork ez daiskula esan sakabanatzaillak edo «separatistak» garanik. Batasuna gura dogu eta zuzentasunean batuko dan Europa'ren lagun gara.

Aberrien berezko nortasuna ta eskubideak nai doguz gutzat eta gulako aberri guztientzat. Ori oiñarri dala, bator batasuna Europa'n eta munduan.

LETONA

BARRIAK

OLERTI-EGUNA LARRA'N

URTEKO TA AURTEN

Urtero lez, eta aurtengoagaz amazortzigarrenez, ospatu genduan Kristo Erregeren egunean, azillaren ogeian ain zuzen, Euskal-Lirika ta poemakaz maite-mindurik gagozen guztion egun zoragarri au.

Ez zan izan, ez inola ere, egun edozelango bat.

Olerkari bikaiñenatarikoakaz batu giñan guztiok, egin genduan egun aztu ezin, gogoangarri bat izan zan.

Bertan aurtu genduzanen artean batetik betikoak naiz sarritan bertaratu oi diranak ziran.

Euren artean Akesolo, Eusebio Erkiaga, Zeleta ta A. Zubikarai jaunak.

Bestetik euskal olerti zugaitzari bizi-gaia, gozoa, izerdi barriak emon oi dautsen landare barriak. Ots: Martin Ibarra jauna, Irun' darra, bein eta geiagotan saritua izan dana, ta Goikoetxea gaztea, here «Zorion billa» alegi-bertsoekaz alegi-sail ontan epaimaikoak saritu ehena.

Gazte onentzako izan ziran txalo ta gorralpen bizierak. Gaztedia bear dogu guztirako, benetan.

* *

MEZEA

Euskal-abesti gozoz osoturiko mezea Aita Santi'k emon eban.

Bere itzaldia, beti lez, senti-tuan, giza-bizitza urte-aroakaz korra, cderrenetarikoa, bizkaiera alderatu, konparau eban tartigozo-gozoan esanikoa, egiz.

Kristo'ren erregetza Euskal-baten. rrian len, orain eta gero baten: au izan here mamiña, muiña.

Euskalerriak Kristo'ren aurretik, Jaungoikoa bere era ta tankeran gurtzen eban. Oiturak, jaunen artean banandu zan. ekandu zarrak, orain arte itxi Onei lana be gorengo maillakoa, alegia.

Gero seigarren mendean or nunk bait Kristo ezagutu, gurtu ta erregetzat artu eban.

Bere erregetzak gaurdaiño diran gure oitura zarrak sendotuz eta gaurkotuz Kristauntasun paregabcan.

Olan arerioak be gore aurka jagi arren itxaropentsu jardun bearra dogu. Kristo'k hetu errege iraungo dau euskaldun geienen biotz-barneetan orain eta beti.

* * *

SARIKETAK

Aurten Larrea'n barritze polit itzaldiak. eta egoki bat danok nabaritu genduan.

Lekalde-ean bertan otoitz-etxe bat egin dauskue.

Aldiz-aldi gogo jardunak, ejerzizioak, edonork egin leikez orain, Zidarrezko lauki eder bat, Auta 1 aguntzailleak orretarako eskaratzcan eta beste scrbitzuetan eskiñi jakon.

lekaimcak, mojak, doguz. Goi-aldeko areto barri apaiñean izan genduan olerki-hatxarra,

Lirika-saillean len aitaturiko Martin Ibarra jaunak artu eban lenengo saria.

Berc lan punterenegoa irakurri beti biotz-gazte dogun Zeleta ondorcn, txalo ugariak artu zi-jauinak, txirrita izan zanaren bertso gordin-samar ta alaiakaz, detasun, paralelismo miragarri Jauna lagun, ia datorren urtean be orrenbeste gitxienez dogun.

Merezigarri da, baiña ez noa gun. Ordura arte ha. onetzaz luzetzera.

Bigarren saria, erdibana, Paulin Solozabal ta Euscbio Erkiaga lin Solozabal ta Euscbio Erkiaga jaunak irabazi eban. Poemagille errimea dogu bera.

Poema sailan Martin Ugarte Aipamenak he Aurre-Aprreiz ta Azpiri jaunak izan zituen.

* * *

BAZKAL - OSTEAN

Bazkaria be bertan izan genduan, beste areto barri bafen. Eguna otza, baiña biotzak alai ta pipil egozan.

Aita Onandia'k inoan lez, jan-edanak emoniko berotasunagaz be laster baten asi ziran abesti ta itzaldiak.

Jazorikoen gogoangarriena, idazle trebe, antzerkigille azpergaitz, bipil, dogun Antonio Maria Labayen jaunari egin geuntsan omenaldi biozkorra.

Zidarrezko lauki eder bat, Aurre jaunaren margoz dotoretua, Berak, bere apaltasunean ez zala merezigarri adierazten euskun bitartean, esku-zarata ugariak jazo zituan.

Gerora, beste batzuen artean, Bordari jaunak bere abesti, itzaldi ta olerkiakaz ta here aldetik

Gerora, beste batzuen artean, Bordari jaunak bere abesti, itzaldi ta olerkiakaz ta here aldetik

Gerora, beste batzuen artean, Bordari jaunak bere abesti, itzaldi ta olerkiakaz ta here aldetik

Gerora, beste batzuen artean, Bordari jaunak bere abesti, itzaldi ta olerkiakaz ta here aldetik

A. J.

«BIZKAIA'N ELEIZEA»K EZ DAU GAIAGO URTENGO

Aspaldion artu dogu gure eleizetan «BIZKAIA'N ELEIZA» aldizkaria. Oraintsu etorri da 43 zenbakia, abendukoa, eta agur egiten dausku.

Zer jazo ete jako?

—Ingura aldatu da.

—Zor asko egiten izan dau, geroago ta geiago.

—Izan ditu akats batzuk, baiña eleizan zerbait euskeraz guztiok gara arduradun.

Sarriegi bertako lagilleak bakarrik aurkitzen izan dira.

--Inor kritikatzeta te ames aundiak egitea da errezago, laguntzea baiño.

Barri-bideen arlo onetan, beste lan hatzuk be egin bearrekoak dira.

«Bizkaia'n Eleizea»k zenbaki bakoitzean 6.000 ale saltzen izan ditu eta ori zor egiteko ei da. Azkenengo zenbakian be ba dakar

OLAZAR'tar Martin'ek

ERRIKO JAIK

Egunokaz izan doguz gure Erriko jaiak.

Zenbat gogamen dakarguz burura egun oneik !

Gure umealdia, joan jakun gaztezaroa, ainbat egun eder, baña bai ta be egun samingarriak euren artean.

Egun mingotsak, bai, guk geurera joten genduanean.

Ez dogu uste arritzekoa zanik guk onela jokatzea sendi euskaldun garbian eziak giñan ezkerro, baña zerbait euskal usaiñekoa bazan gure ekiñaldietan, laster, debekatua izango zan.

Zenbat zigor ori dala ta!

Apurka apurka gure izakera osoa galtzen joiala esan daitekean, eta ori jazo ez bada, eskerrak emon bear, ondo oiñarrituta geunkazan oiturai.

Kalean debekatzen zana, etxe barruko trebetasunean, bere berotasunean, gure guraso ta egun areitan etxean izaten genduzan senide ta adiskikideak, baekien zelan gure Erriko maitasuna zaindu.

Bai, ainbat zor dautsoe gure Erriak, bere jaiiei.

Epel egoana berotzen zan, eta gu umetxo giñanok, eta bai ta be eldutxuagoak, begi, ago ta belarriak zabal-zabalik gure Erriaren ezta-baida zorrotzak, gure gudarien ekintza gogorra gizonaren askatasunaren alde, egun areitan batzen ziran espanakandik ikasi ta ausnartu genduzan.

Baña jakiña, etxeko ixiltasunean egiten zana, ez zan naikoa ta urteen joan-etorrietan, argi ikusten zan gure Erri jaiak ez eukela nortasun berezirik.

Esandako oztupoak alde batetik, eta ori gitxi bazan, emon, edo obeto esateko, iruntziago euskuen zabalkunde edo propagandakaz telebizio, irrati ta izparringietan, ez egoala Euzkadirik. España bakarra baño.

Euskalerrria beste edozein Erri bezala izatera joian.

Baten baño sarriago itandu dautsogu gure kolkoari. Edozein erbesteriko kai baten egonda gero, gabaz lotan gengozala, norbaitek Euskalerrira ekarriko baginduzan, urrengo goizean jagikeran, jakingo ete genduan, jai batetik bestera aldatu genduzala?

Euskal dantza batzuk ikusiko genduzan, abeslari bakar, edo taldeen bat euren saio euskeraz egiten, baña ori ete da euskal giroa?

Orrenbeste, ainbat atzerrietan ikusi geinke edo obeto esanda ikusten da, areitan izan diran leiaketara Euskalerriko taldeak deituak izan diranean.

Ainbeste urteko buru garbiketaren ondoren ez genduan gure gazteen artean zaletasunik ikusten euren Erria ezagutzeko, bere aberastasunean sakontzeko, bere jaiak benetan euskaldunak egiteko, dagozan «barriak eder egiteko» gure Mikel Zarate'k diñoan bezela.

Folklore utsean gelditzen zan geiena, edo guk beintzat onela ikusten genduan.

Ortik gure poza aurten ba, Erriko jaiak eldutean, jakiñerazo euskuenean gure gaztediaren ardurea.

Beste jolasketa azkoren artean, pelikula bi Euskalerrria zer dan, euskalduna nolakoa dan adierazoteko.

Eskerrik asko gazteok!

Jarraitu ekintza orretan. Dantza, abesti ta euskal jolasak laguntza izan daitekez, baña zuek artu dozuen bidea, ori uste dogu dala biderik egokiena gure jaiak euskalduntzeko.

Euskaldundu daigun gure burua, eta gure Erriko jaiak berez-berez euskaldun-giroa artuko dabe iñork igarri barik.

Ekin eta jarrai.

EZIKETEA

IREKASKINTZA ETA EZIKETA

BIZITEKO IKASI

Irekaskintza benetan arduratzeko gorabera bat dogu. Ikasketetan ei dago umeen etorkizuna. Eta esan be egiten dogu: «Ikasten dauana, gero be obeto *biziko* da».

Bai, egia da: «bizi» itz onek arduratzen gaitu ekintzak ez dira gizon ezi batenak. Zelan eziko ete ditugu umeak geu ez bagara eziak?

Ona emen gurasoak eta irekasleak sarritan aitatu bearreko problema bat.

gure umeen eziketa teorikoa baino ez da izango. Beraz guzurrezko eziketa bat lortzen ari gara. Teoriak bakarrik ez dabe inor ezitzen.

Begira geure gizartera, Euskalerra barrura, eta liburudun asko aurkituko gara egoera onetan. Liburudunak eta titulodunak gara, baiña gure

gure umeen eziketa teorikoa baino ez da izango. Beraz guzurrezko eziketa bat lortzen ari gara. Teoriak bakarrik ez dabe inor ezitzen.

GURASOAK ARDURAZ

Eskolaurreko urteetatik asita, gurasoak umeen bizi oneko etorkizunaz arduratuta ibiltzen gara.

Usterik onenaz, eta biotzaren logikarik aundienaz gaiñera.

Eta arrazoizkoa deritxot.

Baiña... ikasketaz gainera, arduratzen ete gara geure umeen eziketaz?

Ba aal dakigu zelan, zertarako, zergaitik, noizko izango eta norako ezi nai ditugun?

Konturatzen etc gara gizarte baten barruan bizi garana, eta gizarte orrek-gurean Euzkadiko gizarteak— problema bereziak dituan eta geure umeak bertan bizi bearko dirana?

ZENTZUNA - ENTZUNA

Umeak be geure antzera dabilbaz, besapeak liburuz beterik dabezala.

Baina oneik bakarrik ez dira naiko sarritan. Ez dagitsegun errurik bota, sarritan entzun dogunez, umeen entzuna etxean (edo ikastolan) entzuna da eta.

Aztertu dagiguzan, ba, leenengo geure bizitzak gizartera zuzenduak diranentz. Onela ez bada, gure umeak ezitzeko aalegiñak uts berezi bat dabe.

GIZARTE - GIROA

Bai, gizona, eta beraz umea, gizarterako egiña da.

Eta gizarteko garean ezkerro, gure umeen rrik. eziketa bertara zuzendu bear izango dogu.

Beraz eurak ondo bizitzeko bakarrik ezin ezi batzuen eta bai besteen eskupetik noiz urtengo aurkitzen da.

GEURE BIZITZA

Baiña, teoriak itzi eta jo dagigun geure bizi-tzara, teoriak baino ekintzaz obeto ezitzen da eta. Aztertu dagigun gure bizitza, eta orrela ez bada,

GURASOAK eta IRAKASLEAK

Teorikoa izanaz gainera, gaurko umeen ezi aitatu bearreko beste uts bat be da dau: ezitzaleen baterako jokabide eza.

Geienetan gurasoen eta irekasleen jokabideak ez dira baterakoak izaten, eta umea banakuntza onetaz naiko azkar konturatzen da.

Egoera onetan umeak menpeko ditugu, bai gurasoak eta bai irekasleak; baina menpeko baka-

Umeak ez daki nora jo, eta geienbaten bai batzuen eta bai besteen eskupetik noiz urtengo aurkitzen da.

Onela izanik, eziketan lortu dagikeguzan fruituak oso urriak izango dira, eta ez gaitez an larritu urte gitxi barruan uste bako eta gure etikatik kanporako jokabideren bat artuko baleue.

Gurasoak eta irekasleak, ez ete gara geu umeak baino leenago ezi bearrekoak?

B E R M E O



IKUSTALDIA

Urteak ziran enintzala Bermeo'n egon. joan dan astean, eta uste baga, senide batzukaz araiño urreratu nintzan.

Erri ta kai-inguru guztiak begiztatu, bertako jatetxe baten jan, notin batzukaz jardun eta ango barri batzuk ikasi, ta alan-alan, patxadaz egun zoragarri bat emon genduan.

Kaia aunditzen diardue ta premiñea se benetan **BIGARREN UR-ARKA** galanta da.

195 itxasontziraiño kokatu ori dira bertan eta beste 37 aundiagoak Ondarroa'ko kaira babes-billa, toki-ezagaitik, jo bear dabe.

Urontzi txikietan España'kaoak baiño lenagokoa da.

Urte arrunta baten 15.000 tonelada arrain etxeratu oi dabe; eta urte banaka berezietan 23.000 toneladatik gora.

Beste itxas-ertzeko kaietan, oster, 6.000'tik 10.000' raiño toneladak urontzietatik atera oi dabez.

Andia da, egitan, aldea, diferentzia.

ERRI BEARGIÑA

Arrantzuan diarduenak, bermeotarrak geien baten, iru milla arrantzale or nunbait ei dira; eta beste sei millatik gora ondorengo lanetan daragoioenak.

Onein artean arrain-jaki gordetzeak, gazitzeak, izotz-olak eta era berean ontzitegiak ta sare mueta askotariko ola txikiak, batik bat, jardur-arazoten dabez berein gizonetz'ko ta andrazko leiatsuak.

ITXAS - MURRUA LUZATZEN

Lanak asko aurrerratu dabe.

Azkeneko arri-mokor astunak nasearen amaia bat laster baten adieraziko dabe.

Itxas-murru au 1950'garren urtean 50 neuskin luzatu eben eta batera beste garrantzi aundiko lan

batzuk burutu zituen. Ots: Artza'ren egoaldeko itxas-zubi edo barradera amaitu eben eta bardin kai-barneko karramarro-dragatze edo garbitzea.

1964'garren urtean ain zuzen, itxas murrua beste 300 neuskin luzatzea erabagi eben eta bere amai **pozgarria** egunotan ikusi al izango dogu ziur-ziur.

Kontradikearen eraikitzea igaz asi zan eta bere asierako aurre-kontu edo dirutza 157 milloi pezetakoa izan zan.

Ez dirudi larregi danik, batez be lanen iraupena, 42 illebetekoa, begiratuaz.

Dana dala, ba leiteke diru-eraltea batetik eta bearren irautea bestetik, zenbaketa onein gaiñetik egotea, bai bein.

Gaiñera aurtengo uriola galgarriak zirala'ta, kaiayen lan premiñazkoak zerbaiten atzeratuta geratu ziran.

Ori ta be, joan diran azkenengo illeetan aguraldi obeakaz ain zuzen, kontradikearen lan oneik asko aurrerratu dabela dirauskue.

Olan zerak, danok bat dagoz, lanen amaieran, 37 itxas-ontzi aundi-samarrak be beliatuko dirala ur-arka barriaz, barradera lez bera erabilliaz nunbait. Itxas-zubi, barradera, barriak be eraikiten daragoie eta berebat garrantzi gorengo elkarpedeko bidea, bide zabalagaz bat-egite funtsezkoa egin dagian.

Kai-barneko garbiketaz be noizean bein ba diardue.

Bere itxas-arpegia txukundu, dotoretuz, laster baten Bermeo Kantauri Itxasoko kai ederrenetariko bat izango da.

Oraïn be ez danik ezin geinke esan.

A'TAR, JO.

GIZA-ESKUBIDEAK ETA LEGE ZARRA

ESKUBIDEEN LENENGO AGERPENA

Laterri aundi ta ospetsuen artean, giza-eskubideen agerpena lenengoz zehinek egin dauan esta da.

XV eta XVI mendean, lurralde txiki baten, eskubideen benetako agerpen antzeko bat lortu zala esaten ba'dogu, gizajokeri bat esango ete genduke?

Gure Forua edo Lege zarra, egia esan, burutsuen jakituri erara eginda ez dago eta ori izan zan XVIII gizaldian onartzen zan bide bakarra.

Baiña giza-eskubideai dedu ta itzala izateko egizko oiñarria bai, ba ziran. Eta orregaitik, giza-eskubideen eskutitz argi-argia.

* * *

«HABEAS CORPUS» OITURETAN

Lege zarrak, beste agerpen askok ez euken alderdi on bat euken: Ez ziran paperetako egitarauak, artu bear zan eta artzen zan jokabidea baiño.

Eta Ingalaterra'ko 1679'ean «Habeas Corpus» eta 1776'ean egin ziran Virgiiia'n agerpena baiño lenagoko ta antxiñagokoak zirala jakitea, da gauza miragarria.

Gure Lege Zarrak 1452'an, bagillaren 2'an agertu ziran idatzita, baiña an agertzen diran berba oneik ez dira aiztutekoak: «Eran de libre aldebrio y no estaban escritas».

Idatzi barik egotetik kalte batzuk etorri leitekezelako, urte orretan lenengoz papeletan jarri ziran. Beraz, Foru Zarra baiño lenagotik ba egozan Bizkaia'n giza-eskubideen oiturak.

* * *

BARDINTASUNA TA ASKATASUNA

Giza-eskubideen agerpen guztiak lenengo agertzen dabezen gauzak bardintasuna ta askatasuna izaten dira.

Frantzia'ko autorpenak diño: «Gizonak jaiotzatik askeak eta bardiñak dira».

ONU'ren autorpenak: «Gizon guztiak askeak eta eskubidez eta duintasunez bardiñak jaioten dira».

Dakustanez, ba, bardintasuna ta askatasuna gizonaren nortasunaren eta eskubideen oiñarri lez artzen dira.

* * *

LEGE ZARRAREN OIÑARRIAK

Ikusi dagigun gai bi orreik zelan zaintzen diran gure Foruan.

Lenengo bardintasuna:

XVI mendearen asieran ezin zeitekean esan gizonak bardiñak dirala, gero Frantzian eta ONU'n esango dan lez : Otseñak egozan eta gizon aske ta buru jabeak be talde bitan banatzen ziran: leñargi zaldunak eta bemaillako txumeak.

Ezbardintasan ori kentzeko, Foruak diño : «Todos son hidalgos», guztiak leñargi zaldun eta odol garbikoak dira.

Urrengo askatasuna:


Gai onetan ez dogu uste izan bear, Foruak askatasuna oraingo legeak lez adiazoko dauanik. Esaterako, ezin izan izparringietako askatasuna, izparringirik ez egoan aldi aretan. Ezta alkarte askatasunik be, lagundirik ez egoan aldian.

Baiña Bizkai'ko Foruak, sal-erosketarako askatasuna argi agertzen dau, esaterako.

Amargarren legeak, lenengo idazpuruan diño: «Bizkaitarrak aske ta euren buruen jabe dira, saltzeko, erosteko ta saldu-erosian erabilteko».

Bizkai'ko Jaun-Erriaren Forua zaintzeko España'ko errege guztiak zin egiten eben. Erre Kato-likuak be egin eban zin ori, bearrezkoa zanez.

EGILUZE



70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL DE BILBAO**

ONDO ERANTZUTEN DAU